



## **DONOSTI CUP MUNDUAN BEKEN DEIALDIAREN OINARRIAK**

### **1. XEDEA**

Oinarri hauek Donosti Cup Munduan beken lehen edizioko deialdia eta parte-hartzea arautzen dute. Beka horiek Donosti Cup erakundearen gizarte-ekintzaren barruan daude, eta kirola gizartean eragiteko tresna gisa sustatzeko konpromisoa hartzen dute.

Beka hauen helburua Donosti Cup 2025 Oinarrizko Futboleko Nazioarteko Txapelketan futbola aldaketa sozialerako bitarteko gisa erabiltzen duten baliabiderik gabeko bi erakunderen partaidetza urtero ordaintzea da.

### **2. ZUZKIDURA**

Bekaren bidez, hautatutako bi taldeek txapelketan parte hartzeko eta izena emateko gastuak estaliko dira, Donostiarako joan-etorriko garraioa barne, baita txapelketaren astean zehar ostatua, mantenua eta garraioa ere. Beka gehienez 20 lagunentzat da, jokalarien eta teknikarieren artean, 7 gau arteko egonaldiarekin.

### **3. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

Irabazi-asmorik gabeko erakundeek jaso ahal izango dute beka, hala nola GKEek, kirol-klubek, elkarteek, federazioek edo gizarte-proiektuen sustatzaileek.

### **4. AURKEZTEKO MODUAK ETA EPEA**

Hautagaitzak Donosti Cup-en webgunean eskuragarri dagoen memoria ofiziala osatuz aurkeztu beharko dira. Memoria hori, behar bezala sinatuta, webgunean prestatutako formularioaren bidez bidali beharko da, proiektuaren irudiekin batera.

Hautagaitzak aurkezteko epea 2024ko urriaren 1etik 2024ko azaroaren 1era izango da (Espainiako 23:59 arte, GMT +1).

Erakunde bakoitza behin aurkeztu ahal izango da deialdira, txapelketan proiektu ezberdinek parte hartzea errazteko.

### **5. HAUTAKETA-PROZESUA**

Donosti Cup-ek jasotako hautagaitzen lehen ebaluazioa egingo du oinarriak betetzen direla egiaztatzeko. Baldintzak betetzen dituzten hautagaitzak antolakuntzak izendatutako epaimahai batek ebaluatuko ditu. Epaimahai horrek aukeratuko ditu talde irabazleak, gizonezko bat eta emakumezko bat.

Epaimahaia kirol eta gizarte arloko pertsona ospetsuek osatuko dute, Donosti Cup-ek izendatuak, eta independentziaz eta zehaztasunez jardungo dute eztabaidan. Epaimahaiaren erabakiak apelaezinak izango dira eta hautatutako taldeei 2024ko azaroaren 30a baino lehen jakinaraziko zaizkie.

## **6. IRABAZLEEN BETEBEHARRAK SARIA ONARTU ONDOREN**

Beka onartzeak esan nahi du taldeek konpromisoa hartzen dutela Donosti Cup 2025ean parte hartzeko, bai eta kirolaren balioak sustatzeko eta beren komunitateetan gizarteratzeko ere. Zehazki, irabazleek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Espainiara bidaiatzeko behar diren bisak eta baimenak kudeatzea, behar izanez gero.
- Donosti Cup-ek antolatutako ekitaldi eta ekintzetan parte hartzea.
- Proiektuaren irudiekin 30 segundoko bideo bat ekoiztea eta bidaltzea, Donosti Cupeko plataforma ofizialetan zabaltzeko.

## **7. OINARRIAK ONARTZEA**

Donosti Cup Munduan Beken deialdian parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek erabat onartzea eta horietatik eratorritako betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzea.

## **8. DATUEN BABESA ETA PRIBATUTASUNA**

Datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz, Donosti Eventos SLk, Donosti Cup-eko antolakuntzako arduradunak, kudeatuko ditu beka deitzeko eta hautatzeko prozesuan zehar emandako datuak. Datu horiek hautagaitzak kudeatzeko baino ez dira erabiliko, eta, hala badagokio, talde irabazleen zabalkunderako. Parte-hartzaileek sarbide, zuzenketa, ezabapen, muga, aurkakotasun eta eramangarritasun eskubideak erabili ahal izango dituzte [info@donosticup.com](mailto:info@donosticup.com) helbidera mezu bat bidaliz, nortasun agiriaren kopia batekin batera.

## **9. JURISDIKZIOA**

Oinarri hauek Espainiako legediak arautzen ditu. Deialdi honen inguruan sor daitekeen edozein eztabaida Donostiako epaitegi eta auzitegiek ebatziko dute, eta